

getxoBerri

/ Nabarmenezkoak

- > 300.000 bisitatik gora izan dira RKEen bakarrik bederatzi hilabetean, 2018an (2. or.)
- > Saharar gazte bati buruzko "Tito" dokumentalaren estreinaldia Getxon (3. or.)
- > Raspasek lehiatzeko indarra areagotuko du, aulki mugikorreko hamar ontzi berriekin (4. or.)

Oxford Unibertsitateak Getxo aukeratu du bere hezkuntza-materialerako (3.or.)



Neguko Bidaia zikloa. Hilak 19, larunbata, 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Calle del remolino taldearen kontzertua (flamenko). 5€.

"Musika barrutik" zikloa. Hilak 16, asteazkena, 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako mediatekan, hitzaldia: "El teatro de Pablo Sorozobal". Hizlaria: Mario Lerena (musikologoa). 3€.

**A-
GENDA**

"Getxo Sasoi Sasoi" Kirolaren XII. Gala 10ean, ostegunarekin, egingo da itsas bidaien terminalean

Olatz Etxebarria, Pablo Paredes, Garazi Sánchez eta Rafa Vilallonga, Getxoko 2018ko Kirolari Onenerako hautagaiak

Olatz Etxebarria judoka, Pablo Paredes eskubaloiko jokalaria, Garazi Sánchez surflaria eta Rafa Vilallonga belar hockeyko jokalaria dira Getxoko 2018ko Kirolari Onenaren sarirako hautatu diren lau finalistak. Irabazlearen izena *Getxo Sasoi Sasoi* Kirolaren XII. Ekitaldian emango da ezagutzera, datorren ostegunean,

urtarrilaren 10ean, 20:00etan, Kirol Portuko itsas bidaien terminalean, Olatua izeneko eraikinean. Sari horien bitartez, Getxoko Udalak udalerrian kirola sustatzen aritzen diren pertsona eta erakundeak ere saritzen ditu. Sarituen zerrenda, beraz, ondorengo koadroan agertzen diren izenekin osatuko da.

GETXO SASOI SASOIAN 2018ko SARIAK

GETXO KIROL BERRIAK-NESKA. **Olatz Etxebarria**

GETXO KIROL BERRIAK-MUTILA. **Rafa Vilallonga**

GETXO KIROL BERRIAK-NESKEN TALDEA. **Getxoko Aixerrota BKT**

GETXO KIROL BERRIAK-MUTILEN TALDEA. **R.C. Jolaseta de Hockey**

GETXO KIROL SARIAK-EMAKUMEA. **Garazi Sánchez**

GETXO KIROL SARIAK-GIZONA. **Pablo Paredes**

GETXO KIROL SARIAK-EMAKUMEEEN TALDEA. **Bizkerre Futbol Taldea**

GETXO KIROL SARIAK-GIZONEN TALDEA. **Fadura Tennis Taldea**

GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-BERDINTASUNA INDARTUZ. **Verónica Grande**

GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-MARKA HAUTSIZ. **Jorge Pineda**

GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-KIROLTASUNA. **Koldo Gorrotzategi**

GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-GETXO BERRITUZ. **Trirunners Running Kluba**

GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-GETXO ZABALA. **Juan Carlos Larrea**

GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-AITZINDARIAK. **José Luis Ribed**



2020ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea abian da

Urtarrilaren 12tik 23ra bitartean 2020ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea garatuko da. Horretarako Udalak milioi bat euroko diru-saila esleitu du. Prozesua egonkortzen ari da eta Udalaren asmoa da, hemendik aurrera, urteko lehenengo hilabeteetan egitea; horrela, herritarrek kontuan hartuko dute eta bere ekarpenak era eroso eta ordenatuago batean egin ahal izango dituzte.

Aurrekoetan bezala, getxotarrek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horiek aztertu eta aintzat hartuko dira, betiere udal eskumenekoak badira, lurraldearen oreka mantentzen badituzte eta teknika edota ekonomia aldetik bideragarriak badira. Ekarpenak arlo hauekin egon daitezke erlaxionatuta: Kultura, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Ingurumena, Gizarte Zerbitzuak, Hirigintza, Sustapen Ekonomikoa eta Turismoa. Ez dira aintzat hartuko udal eskumenekoak ez diren proposamenak edo teknika edo/eta ekonomia aldetik bideragarri eta jasangarri ez diren proposamenak.

Prozedura

Proposamenak Getxon erroldatuta eta 16 urte baino gehiago dituen edozein pertsonak aurkez ditzake, baita izaera juridikodun erakunde baten ordezkariak, baldin eta erakundearen egoitza soziala edo erakundea modu iraunkorrean Getxon badago –betiere Getxon erroldatuta badaude eta 16 urte baino

gehiago badituzte-.

Proposamenak egin daitezke:

1. Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez www.getxo.eus/partehartu
2. Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadura kiroldegietan jarriko diren kutxetan erabilgarri dauden inprimakiak betez eta entregatuz.
3. Proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) gobernuirekia@getxo.eus helbidera bidaliz.
4. Algorta, Areta eta Bidezabal geltokien inguruan jarriko diren postontzietan inprimakia sartuz.
5. Metro geltoki inguruetan jarriko diren karpa informatiboetan: **Bidezabal (urtarrilak 16, asteazkena)**, **Algorta (hilak 17, osteguna)** eta **Areta (hilak 18, ostirala)**.

Ondoren, udal teknikariek aztertuko dute herritarren proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak proiektu bilakatuko dira. Udalak jakinaraziko du aukeratutako proiektuen behin betiko zerrenda eta, bigarren fasean, bizilagunek lehenetsiko dituzte proiektuak. Behin prozesua amaituta, herritarrentzako itzulketa txostena egingo da eta, bertan, hartutako proposamen eta erabakien arrazoiak azalduko dira.

Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/presupuestos-participativos-2020/>

EDICIÓN XII. EDIZIOA

GUZTIEN ARTEKO KIROLA · DEPORTE ENTRE TODOS/AS

Getxo Sasoi Sasoi 2019

Getxo Kirol Sariak · Premios del Deporte de Getxo





URTARRILAK 10 OSTEGUNA

Getxon zuzenean. Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Moni&CO (pop-rocka). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Hitzaldia eta dokumentala: "Zoriontasuna Vicente Ferreren arabera". Hizlaria: Xabier Orueta Coria. 18:15ean Romoko San José Obrero parrokiako areto nagusian.

URTARRILAK 11 OSTIRALA

Kontularien Kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuinak kontatu edo entzun nahi duten nagusien topagunea.

Cinema Paradiso. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Valeska Grisebachen "Western" pelikularen proiektzioa (hizk: alemana-bulgariara; 12 urtetik gora). Sarrera: 3,50€

URTARRILAK 12 LARUNBATA

Ingurumen Aretoa. "Boluuko esploratzaileak". Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. 10:00etatik 14:00ak arte. Doako jarduera. Informazio gehiago: tel.: 688 88 35 96 eta www.ingurumenaretoagetxo.eus.

URTARRILAK 13 IGANDEA

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Harpetarra". Euskaraz. 7 urte baino gehiagokoentzat. Sarrera: 2,50€.

Ingurumen Aretoa. Txiki taillerak 6-14 urte bitarteko umeentzat: "Egin ezazu lore sorta bat hainbat materiala berrerabiliz". 10:30etik 13:30etara. Doako jarduera. Informazio gehiago: tel.: 688 88 35 96 eta www.ingurumenaretoagetxo.eus.

URTARRILAK 14 ASTELEHENA

Agate Deuna koru jaialdia. Izenematea urtarrilaren 25era arte. Informazioa: Algortako Kultur Etxea, tel.: 94 491 40 80, eta iananue@getxo.eus -gaia: Agate Deuna.

Hitzaldia. 19:00etan Romoko Gobelaurre Boluntariotza Zentroan, "De mujeres de ciencia a través de textos literarios". Hizlaria: Marta Macho Stadler (Doktorea eta Matematiketan irakaslea EHU). Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte. <https://sinopeblog.wordpress.com>

Odol-ateratzea. Algortako Geltozia plazan. Goizez eta arratsaldez.

URTARRILAK 16 ASTEAZKENA

Liburuaren aurkezpena. Diego Lopez Ruiz-en "Mundimagi-

na". 19:00etan Algortako Kultur Etxean.

Musika barrutik zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako mediatekan, 18:30ean. Hitzaldia: "El teatro de Pablo Sorozobal". Hizlaria: Mario Lerena (musikologoa). Sarrera: 3€.

URTARRILAK 17 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Villamonteko haur-liburutegian, 18:00etan, "Un poquito de autoestima, por favor" (gaztelaniaz, 5-10 urte) Cataplina eskutik.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinoan, 19:45ean, Kultur Etxearen sortze-idazketa tailleraren eskutik Ricardo Plijiaren "Plata quemada" liburuari buruzko topagunea.

Getxon zuzenean. Areetako Glass Grill Urbano tabernan, 20:00etan, The others (pop-rocka). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Hitzaldia "Hazkuntza pertsonala eta coachinga zaldiek". Hizlaria: Inmaculada Romero (gizarte langilea eta coacherra zaldiek). 18:15ean Romoko San José Obrero parrokiako areto nagusian.

URTARRILAK 18 OSTIRALA

Zine kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Anahí Berneriren "Alanis" pelikularen proiektzioa (hizk: ingelesa; 16 urtetik gora). Sarrera: 3,50€

URTARRILAK 19 LARUNBATA

Neguko Bidaia zikloa. Kontzertu didaktiko-musikalen zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Calle del remolino taldearen kontzertua (flamenkoa). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€). Sei kontzerturako abonamendua: 25€ (15€ ikasleentzat).

Ingurumen Aretoa. Familientzako Escape Room-a: "Zaborreta doktorea". Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. 10:00etatik 14:00ak arte. Doako jarduera. Informazio gehiago: tel.: 688 88 35 96 eta www.ingurumenaretoagetxo.eus.

URTARRILAK 20 IGANDEA

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Stubby, un héroe muy especial". Gaztelaniaz. 7 urte baino gehiagokoentzat. Sarrera: 2,50€.

Ingurumen Aretoa. Txiki taillerak 6-14 urte bitarteko umeentzat: "Egin itzazu zure elur bola". 10:30etik 13:30era. Doako jarduera. Informazio gehiago: tel.: 688 88 35 96 eta www.ingurumenaretoagetxo.eus.

Mendi irteera. Arrigorrista (Iturrieta mendia, Araba). Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea. Informazioa eta izena emateko: etorkizunamt@gmail.com eta 606 63 71 28 (whatsapp).



Liburutegia eta Nagusien Etxea dira gehien eskatutako zerbitzuak

300.000 bisitatik gora izan dira RKEen bakarrik bederatzi hilabeteen, 2018an

300.000 lagunek bisitatu eta erabili dute Romo Kultur Etxea-RKE, iragan apirilaren 9an bere ateak zabaldu zituenetik eta 2018ko azken egunera arte, Kultur Etxeak bisitari kopuruaren inguruan egin zituen aurreikuspen guztiak gaindituz. Lortutako kopuru hori, Bizkaiko hiriburuko kultura-gune garrantzitsuenetako batzuk izan duten jendetzen antzeko parametroetan kokatzen da. Gogoratu zabaldu eta lehenengo hilabeteen bakarrik, 1.250 pertsona etorri zirela egunero RKEra. Horrez gainera,

uste da bere lehenengo urterena betetzeko falta diren hiru hilabeteetan 400.000 lagun zerbakiak gaindituko dela. Orain arte gehien erabili diren zerbitzuak Liburutegia eta Nagusien Etxea izan dira.

Jendetza bildu duten jarduerak

Orain arte Kultur Etxeak antolatutakoak ez ezik udaleko beste sail batzuk eta herriko hainbat elkarte eta kolektibok antolatutako jarduerak ere egin dira RKEen, eragile sozio-kultural bezala

diharduz. Jende gehien bildu dituzten jarduerak izan dira, besteak beste, Komiki Azoka, 4.500 lagunekin, Getxo-Plentzia trenbidearen eraikuntzaren 125. Urteurrenari buruzko Erakusketa, 3.260 bisitarirekin, SOKA Erakusketa, 2.985ekin, Getxoarte Aretoa, mila lagun inguru bildu zuena. Aipatutakoez gainera, beste ekintza batzuk ere hartu ditu, hala nola Aixe Getxo eta Ramiro Pinilla Literatura Lehiaketaren sari banaketa ekitaldiak eta Mendifilm Jaialdiaren emaldiak.

64 bat etxebizitza eraikitzeko

Jendaurreko saioa Sarrikobasorako HAPOren aldaketa zehatza azaltzeko

Udalak jendaurreko bilkurarako deialdia egin du Algortako Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19. zenbakietarako Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) aldaketa zehatzari buruzko edukia azaltzeko. Saioa, Herriaren Parte-hartzearen Programaren arabera antolatu da, eta datorren asteazkenean, hilaren 16an, egingo da 18:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

Aldaketa horrek ekarriko du, besteak beste, Sarrikobaso kaleko 7, 9, 11, 17 eta 19. zenbakiak eremu berean sartuko direla eta gaur egun degradatuta dagoen alder-

di bat eraberrituko da, bertan dauden eraikinak egoera larrian baitaude. Hirigintza-arauaren aldaketak bi eraikin diseinatzea proposatzen du. Bata, etxebizitza kolektibo liberako erabiliko dena: 3.000m² inguruko lur-zatiaren gainean 36 bat etxebizitza eraikiko dira eta lokal komertzialerako ere erabiliko da (300 bat metro eraikigarri). Eta beste bat, araubide orokorreko udal etxebizitza kolektibo tasatura eta babes ofizialeko etxebizitza kolektibora bideratuko da: 2.100 m² inguruko lur-zatiaren gainean 28 bat etxebizitza altxatuko dira.

Horrez gainera, aipatutako esparrurako HAPOren aldaketak aurreikusten du 1.000 m² inguruko azalera bat udalerriko zuzkidura publikoetara bideratzea eta 465 m²-ko beste bat berdegune eta espazio libreetara.

Jendaurreko saio hau bai elkarreentzako bai hiritarrentzako dago zabalik eta eskatzen da etortzea baieztatzea, 94 466 01 60 telefonora deituz edo aortun@getxo.eus helbide elektronikora mezua idatziz. Argibideak:

<http://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/sarrikobaso>

GetxoMeeting saio berriak

Urtarrilaren 17 eta 31n GetxoMeeting saio berri bi egongo dira, negozio propioa daukaten edo jartzeko asmoa duten eta aurrera egiten jarraitu nahi dutenentzat, hain zuzen.

17ren gaia *Zehaztu ezazu orain 2019rako zure estrategia izango da eta 31n,, aldiz, Zerbait berria egin ezazu. Asma ezazu zure enpresarentzako zerbitzu berri bat.*

Saioak Getxo Elkartegian izango dira (Ogoño kalea 1, Areetan), 14:30etik 16:30ak arte. Dohainik dira baina ezinbestekoa da, alde aurretik izena ematea getxopro@getxo.eus en edo 94 466 01 40 telefono zenbakian. Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/303>

Emakume Etorकिन Topaketa

Datorren larunbatean, urtarrilak 19, Emakume Etorकिन Topaketa programaren edizio berria abian jarriko da, Udalak antolatuta, emakume etorkinei laguntza eta elkartasun gunea eskaintzeko, eta baita heziketa eta egun dauden eskubide eta baliabideen berri emateko ere.

Doako saioak ekainaren 1era arteko larunbatetan txandaka (batean bai eta hurrengoan ez) izango dira, 17:00etatik 20:00etara RKEen, Romo Kultur Etxean. Parte hartu nahi duten emakumeek izena eman behar dute HABetan, e-mailez mujeresmigradas@getxo.eus helbide elektronikoa edo www.getxo.eus/kulturartekotasuna udal webgunean. Informazioa: 944 66 01 51



- **Salgai** garaje partzela Romoko Santa Eugenia plazan (Kultur Etxea), lehen solairuan. Oso prezio ona. Tel.: 656 70 15 95.

- **Pisu bila nabil** errentan hartu edo erosteko, Getxon. Gehienez 800€/hileko. Tel.: 663 63 12 83.

- **Pisua behar da errentan** hartzeko Leioan, Lamiakon edo Getxon. Prezioa, negoziatuzko. Tel.: 651 19 27 93.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

LABURRAK

*Izen-ematea Agate Deuna koru Jaialdirako.

Datorren astelehenean, urtarrilaren 14an, Kultur Etxeak urtero antolatzen duen Agate Deuna Koru Jaialdiaren XX-XIII. ekitaldirako izena emateko epea zabalduko da. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete hilaren 25era arte Algortako Kultur Etxean (Villamonte, A-8), 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:00etara, edo 94 491 40 80 telefono zenbakiaren bidez edota iunanue@getxo.eus e-postaren bitartez (gaiari "Agate Deuna" jarri behar da).

Ohikoa denez, Agate Deunaren omeneko kantak entzun ahal izango dira udalerriri osoan, datorren otsailaren 4an, astelehenean. Eskola-taldeak goizean jardungo dira eta helduen taldeak eta talde mistoak 18:00etatik aurrera.

Azken talde horien emanaldiak hurrengo bi gunetan izango dira: lehenengoa, Romoko eta Areetako auzoetan eta, bigarrena, Algorta eta Andra Marin. Lehenengo guneko taldeak Areetako Geltokia plazan bilduko dira 20:00etan guztien arteko emanaldia eskaintzeko. Bigarren guneko taldeak Algortako Geltokia plazan jardungo dira ordu berean.

***Casting musikal baterako.** Galea elkarteak 9 eta 16 urte bitarteko neskontzako casting bat antolatu du *Karibeko Piratak* izenburuko musikal ikuskizunean parte hartzeko datorren ekainaren 1ean Romo Kultur Etxean.

Interesatuak ostiral honetan, urtarrilak 11, pasa daitezke elkartearen egoitzatik (Jolastokieta, 4. Areeta), 18:00etatik 20:00etara. Entseguak ostiraletan izango dira, ordutegi berean. Informazio gehiago izateko 679 396 013 telefono zenbakira dei daitezke.



Bideoak grabatu dituzte udalerriko hainbat lekutan

Oxford Unibertsitateak Getxo aukeratu du bere hezkuntza-materialerako

Oxford University Press-ek, Erresuma Batuan hezkuntza materiala ekoizten entzunenatariko erakundeak, gure udalerrira aukeratu du *Claro 2* proiekturako, hau da, liburu bat eta hainbat bideo osagarriak egiteko Ingalaterrako ikasleek gaztelania ikas dezaten.

Footstep Productions Ltd ekoiztetxeak, Londonen kokatutakoak, Bilbao Bizkaia Film Comission-ekin elkarlanean, hezkuntza helburu zuten grabazioak egin zituen 2018ko maiatzean eta urriaren Bizkaiko zenbait lekutan, tartean Getxon. Sasoi horretan, Maddi Barrenetxea Mardaras getxotarrak lan egiten zuen ekoiztetxean (Eusko Jaurlaritzak atzerrian ordaindutako praktikak egiteko gazte tituludunei ematen dizkien Global Training beka bati esker). Bideoek

gazte getxotarrak zituzten protagonistak (Julio Caro Barojaren eta Aixerrota institutuetoako ikasleak) eta elkarlanean aritu ziren bertoko elkarteak ere, besteak beste, Getxo Arraun, Galea C.F. Bestalde, grabaketarako aukeratutako kokalekuetako batzuk Portu Zaharra eta Ereaga hondartza izan ziren.

Maddi Barrenetxeak aipatzen du grabazioa Getxon egiteko ideia Colette Thomson-ena izan zela, ekoiztetxearen zuzendariarena. Berak, aldezturik, bazuen grabazioaren bat egina gure udalerrian eta berritzailea iruditu zitzaion euskal kultura Erresuma Batuko umeen artean zabaltzea. "Estatu espainiarreko kulturaren ikuspuntu desberdin bat eman nahi genuen, eguzkia, uda eta jai girotik aldentuta,

hori baita normalean Erresuma Batuan ezagutzen dena".

Parte hartu duten ikasleak bi castingetan aukeratu zituzten: Julio Caro Baroja institutuan, euskarazko eta gaztelaniazko gelen artean; eta Berangoko frontoian, ekimena ezaguna zuten Aixerrota institutuko ikasleen artean. "Ni Algortakoa naizenez", dio Maddik, "kokaleku asko ezagutzen nituen eta horregatik izan ziren aukeratuak lekuak".

Lehenengo liburuaren materiala 2018ko irailaz geroztik merkaturatu da Oxford University Press-arekin lan egiten duten Erresuma Batuko Bigarren Hezkuntzako institutuen artean. Bigarren liburuaren materialak 2019ko otsailean argia ikustea aurreikusten da.

AF Ndanza: Afrikako itzal-argiak Romo Kultur Etxean

Música Para Salvar Vidas GKEk Afrikako antzerkia, dantza garaikidea eta gorputz-espresioaren ikuskizuna antolatu du AF Ndanza-ren eskutik. *Black dance* deitzen den ikuskizuna ostiraletan izango da, hilak 11, 20:00etan, Romo Kultur Etxean. Sarrera/dohaintza 10 eurokoa izango da. AF Ndanza tribuko musikarien eta dantzarien artean hazi den gazte talde baten proiektua da. Ugandan *Musica Para Salvar Vidas* gizaldekoko proiektuaren barruan sortutako honen helburua da egoera larrietan dauden Afrikako gazteak laguntzea musika eta dantza metodo terapeutikotzat erabiliz; eginkizun

horretarako, estatuan egiten dituzten emanaldiekin autofinantzaketa lortzen dute.

Gorputza bakarrik erabiliz, gai dira kontrastez eta itzal-argiz betetako kontinentearen errealitate dramatikoak adierazteko. Ikuskizunari esker, Afrikaren edertasuna, miseria, fedea, lan-eta esfortzu-gaitasuna, erritmoaren zentzua eta poztasuna nabarmentzen dira. Bigarren zatian, antzezlan gisa, emakumeen mutilazioa salatzen dute. Taldeak 1.000 ikuskizun baino gehiago eskaini ditu estatuan arrakasta handiz.


www.musicaparasalvarvidas.org



Saharar gazte bati buruzko "Tito" dokumentalaren estreinaldia Getxon

Tito izenburuko dokumentalaren estreinaldia izango da udalerrian, datorren larunbatean, urtarrilak 12, 18:30ean hasita, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Gazte baten begiradatik Tindufen errefuxiatu saharren lekualdatzea jorratzen du lanak. Yago Mateok zuzendutakoa berak 2016ko *Eman minutu bat Refugio* lehiaketan lortutako sariarekin finantzatu da. Edizio hori Mateok *Bailemos un Walls* izenburuko ikus-entzunezko piezarekin irabazi zuen. Lehiaketa UNESCO Etxea GKEak antolatzen du, besteak beste, Udalaren laguntzarekin.

Aurkezteko saioan, zuzendariarekin batera, Cesare Maglioni argazki zuzendariak, Abdulah Arabi, Saharako Errepublikako Demokratikoaren ordezkaria eta hainbat entitate ere izango dira, horien artean, BentaraNoa, Reharq* eta ATFAL, Sahararen aldeko Getxoko elkarteak, Irantzu Uriarte Garapaneko Lankidetzako zinegotziarekin batera. *Getxotik Mundura Mundutik Getxora* jarduera solidarioen programari amaiera ipiniko dion saiorako sarrera doakoa izango da.



Horrez gain, larunbatean EMAN MINUTU BAT ikus-entzunezko lanen Nazioarteko 9. Lehiaketaren deialdia ere gogoratuko da, oraingoan INTERKULTURARI buruzkoa. Lanak aurkezteko epea datorren urtarrilaren 31n amaituko da. Informazioa: www.dame1minutode.org.



Udalak 45.000€ko diru-laguntza eman dio

Raspasek lehiatzeko indarra areagotuko du, aulki mugikorreko hamar ontzi berriekin

Raspas del Embarcadero Elkartek lehiatzeko duen indarra handituko du aulki mugikorreko hamar ontzi berri erosi baititu. Udalak 45.000€ko diru-laguntza eman dio ontzien erosketarako. Ontzi berriak, 2016an erositakoarekin batera, iragan larunbatean bedainkatu zituzten, elkartearen instalazioetan, kaiko ontziralekuan. Bertan izan ziren, besteak beste, Imanol Landa alkatea, Álvaro González Kirol zinegotzia, Lorea Bilbao Euskara,

Hezkuntza, Kultura eta Kirol ahaldu-na, Ramón Alkain eta Edrigo Aramburu Euskadi eta Bizkaiko Arraun Federazioetako lehendakariak, hurrenez hurren, elkarteko zuzendaritzako ordezkari eta teknikariak, arraunlariak eta horien senitartekoak. Ontzi berriak, 8+ bat, 4+ bi, 2+ bat eta banakako sei skiff dira, eta horietako gehienak elkarte aretarren historian pertsona esanguratsuak izan direnen izenekin bataiatu dira: hala

nola, Rosa Gorbeña, Federico Marti, Angel Intxaurtietia, Jose Mari Muro eta Imanol Larrazabal. Erosketa berri honen ondorioz, Raspasek, guztira, 31 ontzi ditu aulki mugikorrean jarduteko.

Raspas Arrauneko presidentea den Mikel Barturen eskerrak eman zizkion Udalari, horrek emandako diru-laguntzagatik, "horri esker baldintza onetan lehiatu ahal izango baitugu txapelketa ofizialetan; izan ere, orain arte ontzi luzeen falta nabarmena genuen. Gabezia horrek kategoria ezberdinetako probetan baldintza onetan aritzea galarazten zigun, gure arraunlariak, euren artean, ontziak partekatu beharra zutelako; ondorioz, gure kirol interesentzat kaltegarria zen".

Hartara, Raspasen ekipamendura bildutako ontzi berri hauek hurrengo txapelketei, distantzia luzeko Espainia eta Euskadikoa, berme handiagorekin aurre egitea ahalbidetuko diote klubari.

Halaber, ontzien aurkezpen eta be-deinkapen ekitaldian zehar, Raspas Arrauneko presidentek diplomak eman zizkien Virginia Díaz, Aimar Astigarraga, Asier Larrazabal eta Aitor Blanco arraunlariak, 2018 urtean lortu dituzten kirol merituengatik sarritzeko.

Aurtengo udan J 80 klaseko Munduko Txapelketa antolatuko du, Abrako uretan

Hastear da Marítimo del Abra-RSC elkartearen bela denboraldia

Marítimo del Abra-R.S.C. Elkartearen 2019ko estropada egutegia zabalduko da asteburu honetan I. Sariketa Sozialarekin, Regata eta Crucero eta J 80 motipoen klaseetako belaontzientzat. Lehenengo txapelketa da Klubarentzat pozgarria den urtean; izan ere, ohiko estropadez gainera, udan J 80 klaseko Munduko Txapelketa antolatuko du Abrako uretan. Uztailearen 13tik 20ra bitartean jokatu den Munduko Txapelketa horri gehitu behar zaio Klubak parte hartuko duela Juan Sebastián Elcanoren 5. Mendeurrenako Estropadaren lantaldean.

1. Trofeo Sozialak irekiko du egutegia larunbat honetan, hilak 12, 12:00etan, crucero ontzien aurreneko jardunaldia jokatzuz. Igandean, hilak 13, J 80koena

izango da lehia, urtean zehar protagonista izango direnena. Hiru jardunaldi izango ditu Trofeoak, klase bakoitzean: crucero ontziek urtarrilaren 27an eta otsailaren 9an ere jardungo dute eta J 80ak urtarrilaren 26an eta otsailaren 9an ere arituko dira.

J 80 Munduko Txapelketaz gain, klubak aurtengo urte honako proba hauek antolatuko ditu: Regata a la Inversa-BBVA, maiatzaren 1ean; 15. SURNE-55. Eskarra Trofeo, ekainaren 8an; Bizkaiko Crucero Txapelketa, ekainaren 29 eta 30ean; Costa Vasca-Balle-na de Oro Trofeo, uztailearen 19, 20 eta 21ean; Copa Gitana, uztailearen 28 eta 29an; Copa Castro, irailaren 7 eta 8an; eta regata del Gallo, abenduaren 21ean.



Txirrindulari getxotar bat pistako Espainiako Kopan

Aimar Gorriñobeaskoa Punta Galea Tx. E.-ko txirrindulariak pistako Espainiako Kopan parte hartuko du, kadete mailan; datorren asteburuan, urtarrilaren 19an eta 20an, jokatu da Mallorcako Palma hiriko Palma Arena belodromoan. Proba hori modalitate bereko Espainiako Txapelketarako baliozkoa izango da eta Aimar Gorriñobeaskoa Bizkaia-aren ordezkaria izango da lehiaketa horretan.

Espainiako Kopa hiru proba puntuagarrik osatzen dute. Mallorcakoaren ostean Galapagarrekoa (Madril) egingo da, otsailaren 9 eta 10ean, eta Valentziako Belodromokoa martxoaren 30 eta 31n.

Aimar, halaber, Pistako Gipuzkoako Kopan ari da parte hartzen selekzio bizkaitarrarekin eta aurreneko jardunaldian garaipena lortu zuen taldekako lehiaketetan, jazarpen eta kanporatze modalitateetan; banakako jazarpen proban, laugarren egin zuen.

Getxo Errugbiaren fitxaketa berria 3/4eko lerroa indartzeko

Julián González jokalaria argentinarra da Getxo Errugbiaren azken fitxaketa, hiru laurdenekoen lerroan Chibwe zimbabwetarrak utzitako lekua betetzeko etorri dena. González, -24 urte, 1,74 m. garai eta 80 kilo-, Rosarioko Logaritmo Rugby Klubetik dator; talde horretan eman du bere kirol ibilbide osoa Getxora etorri orduko. Erdilari gisa jokatzeko baina beste toki batzuetan ere joka dezake: uztartze-erdilari, joko-zabaltzaile edo hegaleko bezala. Garaipen batekin estreinatu zen Fadurako hamabostekoarekin, 2018ko liga txapelketako azken partidaren Ourenseren aurka, 33 eta 24.

Jolaseta taldeko jokalariek deitu dituzte Estatuko talentu onenen artera

Lucía Goyoaga eta Sofía de la Puerta R.C. Jolaseta taldeko hockey jokalariek Talentuak Detektatzeko Estatuko Planaren azken fasean parte hartu dute; fase hori duela gutxi egin da Valentziako Beteró herriko kirol instalazioetan, 13 urtez azpikoen kategorian. Bi getxotarrak asteburu oso batez izan dira kontzentratuta aipatutako kategoriako estatuko jokalaririk onenekin batera, Andrés Mondo hautatzailearen agindutara.

Azken fase horretara iritsi baino lehen, jokalariek hainbat proba gaituzte behar izan dituzte, nork bere erkidegoan; belar hockeyko Federazio espainiarrak antolatu dituzte probak.



Aipatzekoa da egun batzuk lehenago, Valentzian bertan, 15 urtez azpikoen deialdia gauzatu zela, aipatutako Plan Nazionalaren barruan, eta bertan izan ziren Jolaseta beste bi jokalaririk, Rafaela Ascarza eta Victoria Madariaga. Oso gazteak diren arren ohikoak dira Neguriko klubeko nesken talde nagusiaren deialdian.

Semealabak

GETXOKO FAMILIA ESKOLAREN ALDIZKARIA



Egunerokoa



Aiurren gurasoak banandu egingo dira.

Oso triste dago eta ez dauka gogorik, beti egiten duen bezala, eskola amaitu ostean lagunekin jolasteko edo denbora pasatzeko geratzeko. Egun askotan ez da eskolara joaten eta notetan ere nabarmen egin du txarrera. Joan den egunean kimika irakasleak agiraka egin zion jarrera txarra edukitzeagatik.

Taldeko pertsona batzuek esaten diote dena konponduko dela, ez dela egoera hori bizi duen lehena eta ez dela azkena ere izango eta munduak aurrera egingo duela. Animatzeko esaten diote, etxetik atera eta dena ahazteko,...; Marak esan dio zortea ere baduela, hemendik aurrera egungo oparien halako bi jasoko dituelako eta nahi duena egiten utziko diotelako.

Jakin dakit asmo onarekin egiten dutela eta animatzea nahi dutela baina, egia esan, uste dut jarrera horrekin ez diotela askorik laguntzen.

Baietz esaten diote, pasatzen ari den hori imajinatzen dutela, badakitela hau guztia berarentzat oso gogorra dela, baina nik uste dut benetan ez dutela horren ideia egiten.

Uste dut ni neu ere bera bezain triste edo tristeago egongo nintzatekeela.

Haserretu ere egingo nintzateke. Aita eta amarekin haserretuko nintzateke, nire familia osoarekin, lagunekin,... mundu guztiarekin!

Etxean familiarekin bizitzea gustatzen zait eta oso gustukoa dut gure egungo bizimodua. Elkarrekin egoteari uko egin beharrak izugarri nahigabetuko ninduke. Halaber, ez dut pentsatu ere egin nahi zein gogorra izango litzatekeen gurasoak euren artean gaizki konpontzen direla eta eztabaidan ari direla ikustea, eta hori motxila aldean hartu eta astero etxe batetik bestera ibiltzearena albora utzi barik; horrek jasanezina izan behar du.

Nik behintzat anai zaharragoa daukat. Aiurrek ez dauka anai-arrebarik bere estutasuna, tristura eta amorrua konpartitzeko. Ezta bere beldurra ere; uste dudalako hemendik aurrera bere bizitza nolakoa izango den ez jakiteak beldurra eragingo diola. Ni neu beldur izango nintzateke.

Oso bakarrik sentitu behar du.

Uste dut bere alde egin dezakedan gauzarik onena oso erraza dela, behar nauenean bertan egotea dela, entzutea eta baldintzarik gabe laguntzea; esaldi hutsekin animatzeko ahaleginik egin gabe eta eskatu ez dizkidan aholkuak eman gabe.

Enpatia, gainditu gabeko irakasgaia

Bere zentzurik oinarrikoenean enpatia beste pertsona batek sentitzen duena aintzatesteko eta ulertzeko trebezia da, jendeak esaten duen “beste pertsona baten larruazalaren barruan sartzea” da eta funtsezkoa da gainerako pertsonetik erlazioak ezartzeko. Elkarbizitzaren oinarria dela esan daiteke.

Gehiago sakonduz, enpatia beste pertsonarekin identifikatzeko eta zer sentitzen duen asmatzeko gaitasuna da, nahiz eta guk egoera horretan beste era batera erantzungo genukeen jakin; sentitzeko, ulertzeko eta zaintzeko ahalmena da. Benetako enpatia beste pertsonarekin erabat egotea da, ebaluazioa eta iritzia bera saihesteko ahalegina eginda. Besteek esperimintatzen ari direnaren ulermen begirunetsua da.

Uste izaten dugu beharrezkoa dela aholkuak ematea, lasaitzea edo gure jarrerak edo sentimenduak azaltzea. Enpatiak, ordea, atentzio osoa beste pertsonak transmititzen digun mezuan finkatzea eskatzen du.

Emozio konplexua da, gauza izan behar dugulako ulertzeko eta onartzeko pertsona baten sentimen-

duak zilegi direla bizi duen egoera horretan, guk geuk egoera berean beste batzuk edukiko genituzkeen arren. Baina ez da hori bakarrik, enpatizatzeak, aldi berean, beste pertsona bat sentitzen ari denari era egokian erantzutea eta, beharrezkoa bada, laguntza ematea ere badelako.

Enpatiaren oinarria ispilu-neuronak dira, gainerako gizakien egoera emozionalak atzemateko eta imitatzeak aukera emate duen neurona mota bat. Horiei esker, adibidez, aharrusiak edo barrea “kutsatzen” dira. Batez ere imitazioz ikasten da eta seinak garenetik eskuratzen da apurka-apurka.

Enpatia oso garrantzitsua da erlazio afektibo eta sozial osasuntsu eta asegarrietarako baina, aldi berean, funtsezkoa da guraso onak izateko.



“Begirada bat ulertzen ez duena ez da gauza izango, halaber, azalpen luze bat ulertzeko”

Pertsona enpatikoa izateko norberaren eta inoren emozioen jakitun izan behar dugu: emozio jakin bat noiz ari den gertatzen jakin behar dugu, kasuan kasuko emozio hori identifikatu, era egokian kudeatu eta sistema hori bera nire neure emozioekin eta beste pertsonen emozioekin burutzeko gauza izan. Horrek guztiak esan nahi du norberaren burua analizatzen eta sakon ezagutzen ikasi behar dugula, ostean ikusteko, entzuteko eta gainerakoak ulertzeko.



“Enpatia mundua aldatzeko kapaz den ideologia bakarra da”
(M. Mariscal)

Honako hauek ez dira enpatia

Gehiegizko presaz lasaitu beharra, errukitzea, kontsolatzea, epaitzea, esaldiak osatzea, erretolika botatzea, kritikitzea edo mehatxatzea izaten dira beste pertsonaren adierazpen emozionala eta komunikazioaren fluxua blokeatzen duten jarrerak.

Beste pertsona baten tokian jartzen garenean gure geure subjektibotasunetik abiatuta egiten dugunean ez gara enpatia erakusten ari, gure egoerak besteengan proiektatzen ari gara. Ez dugu beste pertsona sentitzen ari dena ulertzeko inolako ahaleginik egiten bere inguruabar horiek gure geure ikuspegiaren, gure iritzien, gure geure balore-sistemaren “iragazkitik” baloratzen ditugulako.

Beste pertsona horrekiko afinitaterik badaukagu, hurbiltasunagatik, zaletasunengatik edo gustuenagatik, talde edo erkidego bereko kideak izateagatik, sinpatia sentitzen dugu, hau da, joera afektibo bat, gehienetan elkarrenganako izaten dena eta hurbiltasuna eta adetasuna erakustera motibatzen gaituena, gauza positiboak esatera, aholkuak ematera... **Baina sinpatia eta enpatia ez dira gauza bera eta bereizi egin behar dira.** Beste pertsona batekiko enpatia daukagu, berarekin bat etorri zein ez etorri, berekiko sinpatia eduki zein ez eduki.



Zein garrantzitsua den enpatia garatzea umeen hezkuntzan

- Garapen emozionala bideratzen du; enpatiari esker umeak inguruan egon dagoenean finka daitezke arreta eurengan fokalizatu beharrean.
- Erlazio sozialak hobetzen ditu eta elkar eragiketarako oparagoak dira, lotura indartsuagoekin.
- Sozializazioan laguntzen du.
- Oso zeregin garrantzitsua du adimen emozionalaren garapenean, bere oinarrizko osagaietako bat delako.
- Enpatia gakoa da besteek gu maitatzeko eta geuk autoestimua egokia lortzeko.

Enpatiaren garapena baliabide baliotsua da, umeen gizarte-trebeziak areagotuko dituen

Jakin dakigu gure nerbio-sistema gainerakoekin konektatzeko prest dagoela eta hala enpatia nola laguntzeko ekintza erantzun naturala direla. Beraz, gainerako gizakiekiko erlazioetan baliabide natural horiek praktikan jartzen irakatsi behar da.

3 eta 9 urte arteko tartean burmuinak ohitura psikologikoak jartzen ditu abian eta horregatik funtsezkoa da lehenetsua ematea jokabide batzuen irakaskuntzari, besteak beste eskuzabaltasuna, adetasuna edo errukia, eta ume horiek hazten doazen neurrian beste alderdi batzuk ere sartzen joatea.

Enpatia gaur egun urria den trebezia da bereziki bere onuraren ardura duen jendea bizi den gizartean, isolamendua, indibidualismoa eta egoismoa iraunkor izaten hasi diren gizartean, alegia.

Beste pertsona batzuekiko balorazioagatik edo erreiritziagatik ez garenean errukitzeko, sentitzen dutena sentitzeko eta zaintzeko kapaz, enpatia hautsi egiten da eta hainbeste min eragiten duten indarkeria forma guztiak agertzen dira.

Enpatian hezteak gainerako emozioak kontuan hartuta hezte esan nahi du. Ume bat beste izaki baten lekuan jartzeko eta bere beharrianak ulertzeko gauza bada, identifikazio hori “dike” edo balazta psikiko moduan ezartzen da eta aukera ematen dio bere erantzun emozionala modulatzeko eta jarrera landuagoak sortzeko.

Haur eta gazte enpatikoek, gatazka, bidegabekeria edo biolentzia egoera

Enpatia entzutea, ikustea eta onartzea da, ulermena eta begirunea adieraziz, baina ez du esan nahi hori konpartitzen dugunik, horrekin ados gaudenik edo beste pertsona horrekin bat gatozenik.

baten aurrean, aukera gehiago izaten dute biktimaren aldeko jarrera aktiboak sortzeko.

Enpatia entrenatzea

Nahiz eta mundu osoa ez den enpatiarekin jaiotzen, trebezia hori batez ere imitazioz ikasten da eta seinak garetik eskuratzen da apurka-apurka. Enpatia garatzeko tokirik onena etxea da eta, bigarrena, eskola.

Familian umeak gainerako izakiak ontasunez, adetasunez eta begirunez tratatzen ikasten du.

Familian enpatia garatzeak esan nahi du aukera asko aprobetxatu behar direla. Gutxien duteneko eskuzabalak izaten irakastea, animaliekin kudelak ez izaten eta ingurumena zaintzen irakastea.

Bizitzarako gainerako trebeziekin gertatzen den bezala, enpatia eginez ikasten da. Beraz, irakasteko alferrik dira aholkuak eta diskurtso luzeak. Nahitaezkoa da praktikatzeko, geure burua eszenartzeko, sentitzeko eta hunkitzeko espazio berriak eraikitzea.

Enpatia trebezia bat da eta umeek maneiatzen ikasi behar dute, beti ere ume horien garapenean agertzen den ego indartsua albora utzita. Ez da erraza, baina derrigorrezkoa da inguruarekiko harmonian hazteko aukera izan dezaten. Haurtzaroan oso ohikoa izaten da ego hori protagonista bihurtu eta jostailuengatik edo beste edozein arrazoigatik borrokan egitea, munduak euren inguruan bira egiten duela uste dutelako.

Nahitaezkoa da ulertaraztea pertsona guztiek dituztela sentimenduak eta emozioak. Horrela, enpatia euren bizitzetara iristen denean gauza izango dira inoren sentimenduak ulertzeko eta beste pertsona batzuei minik eragin gabe jarduten ikasiko dute.

Baina,... nola irakasten da enpatia?

- Landu zeure enpatia, konpon itzazu zure kalte emozionalak.
- Izan zaitez eurentzako eredu: umeek egiten dugunetik ikasten dute, ez egin behar dela esaten dugunetik. Enpatiadun pertsona izatea nahi baduzu zuk ere horrelakoa izan beharko duzu eta egunero gainerakoekiko sentsibilitate osoa atera beharko duzu. Trata itzazu zure seme-alabak eta inguruan dituzun gainerako pertsona guztiak enpatiaz, begirunez eta maitasunez, eta zure seme-alabek ikus dezatela. Zu zeu gainerakoen sentimenduekiko abegikor azaltzen bazara, euren gauza bera egingo dute.
- Lagun ezazu enpatia zer den ulertzen: ez azaldu enpatia zer den, horrela ez duelako ulertuko. Benetan ulertzea nahi baduzu beste pertsona batzuen sentimenduei buruz pentsatzea lortu behar duzu. Adibidez, zure alabak ez badu nahi lagunak bere kotxeekin jolastea, galdera bat egin ahal diozu, mota honetakoa: “Nola uste duzu sentitzen dela berarekin gauzak konpartitu nahi ez dituzuean?” Enpatia zer den ulertazteko era bat gorputz-hizkuntza da. Keinuak eta aurpegiaren adierazpenak interpretatzen hasten bada gauza izango da enpatia askoz arinago garatzeko. Honako hauen modukoak esan ahal dizkiozu: “Ikusi duzu nola begiratu zaituen zure lagunak kotxeak berarekin konpartitu dituzuean?” Ohartu zara barre egiten izan duela pozik zegoelako?”
- Trata ezazu enpatiaz: gu geu enpatikoak bagara gure seme-alabek hobeto garatuko dute trebezia hori. Bere beharrianak eta sentimenduak garatzeko bidea eskaini behar diogu. Entzuten badiogu, kontuan hartzen badugu, begirunez

“Munduko miserien eta gaizki ulertuen hiru laurdenak desagertu egingo lirateke pertsonak euren arerioen larruazalean sartuko balira eta besteen ikuspuntua ulertuko balute” (Mahatma Gandhi)

tratatzen badugu eta bere beharrianengatik arduratzen bagara gainerako pertsonenekiko enpatia garatzen ikasiko du.

- Trata ezazu izaki independente moduan: pentsamendu propioak dituzte eta hori kontuan hartuta hezi eta tratatu behar ditugu eta horrela pertsona helduak sortuko ditugu, euren burua besteen tokian jartzeko gauza izango direnak. Beti da ona zure seme-alabekin euren egoera emozionalari buruz, nahi dutenari buruz eta dituzten beharrianak eta asmoei, beldurrei eta abarri buruz hitz egitea.
- Aintzatetsi emozioak eta jarri izenak: bere emozioak ulertu eta maneiatu ahal izateko lehenengo eta behin ezagutu eta aintzatetsi egin beharko ditu. Guk umetatik lagun ditzakegu emozio horiek adieraztera eta izena jartzera, identifikatuz. Galdetu egunero nola sentitzen den, egin emozioen gainean berba, hitz egin ezazue beste pertsona batzuen emozioez. Beti epaitu gabe, bakarrik aintzatetsiz. Nahitaezkoa da ahal duzun guztietan bere jarrerari eta sentimenduei izena ipintzea. Adibidez, zure semea bakarrik dagoen neska batengana hurbiltzen denean elkarrekin jolasteko honako hauen modukoak esan ahal dizkiozu: “oso ona izan zara bakarrik zegoelako triste zegoen neska horrekin hitz egitera joan zarenean”, edo irtenbideak aur-



ki ditzan: “zure anaia triste dago jostailu hori kendu diozulako, zer egin zenezake hobeto sentitu dadin?”

- Lagun ezazu beste pertsona batzuekiko erkide duena ulertarazten. Enpatia gehiago sentitzen dugu ezagunago egiten zaizkigunekiko edo gure antzekoagoak direnekiko. Ulertu egin behar dute zerbait komuna eta erkidea daukagula jende guztiarekin, edonorekin.
- Aprobetxa itzazu aukera guztiak gainerako pertsona guztiekiko ulermena sustatzeko. Oso garrantzitsua da okerrekoak izaten diren estereotipoetan edo sinesmenetan ez erortzea.



Baliabideak [Gomendioak]

Enpatia sustatzeko oso onak dira **ordezkaritza-jokoak**. Aldi berean, oso eragingarria da obserbatzeko-ahalmena: bolumena kendu eta TB ikusi pertsonaiek, euren gorputz-hizkuntza hutsa ikusita, zer sentitzen duten asmatzeko ahalegina egitea; beste bide bat **ipuinak eta fabulak** dira. Ipuinek istorioak kontatzen dizkigute eta protagonistek sentitzen dutenari, aurkitu dituzten zailtasunei edo arazoak konpontzeko erari buruzko galderak egiteko aukera ematen dizkigute. Enpatia sustatzen gauden bitartean, aldi berean, umeen irudimena lantzen egongo gara.

Laburmetraiak



A Joy Story

Inguruabarrak ezagutu edo ez ezagutu pertsonen ekintzak epaitzeko era desberdinei buruzko ikasgai oso ona da.



El regalo (the present)

Kasu batzuetan besteek zer sentitzen duten jakitea da konektatzeko erarik onena

▶ El valor de la empatía

▶ La gallina o el huevo

▶ Ratón en venta

▶ Bideoak eskuragai Seme Alabak .pdf bertsioan. Getxoko Udalaren webgunean deskargatu daiteke: www.getxo.eus/eu/servicios/publicaciones/seme-alabak

11 ipuin enpatia garatzeko



- La paloma necesita un baño
- Cinco minutos de paz
- Soy el mejor
- Mi papá en el zoo
- Esto no es una selva
- Un día diferente para el señor Amos
- Una historia de dos bestias
- El papá de Tesla no quiere
- El pirata de las estrellas
- Nuna sabe leer la mente
- Wonder

info+

Ipuinei buruzko informazio gehiago Seme Alabak .pdf bertsioan. Getxoko Udalaren webgunean deskargatu daiteke: www.getxo.eus/eu/servicios/publicaciones/seme-alabak

Igel marroitxo

Idazlea Pello Añorga
Argitaletxe Haziak

Igel Marroitxo enpatia-ren gaia lantzen duen liburua da: naturarekiko atxikimendua, ki-deen arteko harremanak, norberak egoerak iraultzeko eta ahal-duntzeko duen aukerei buruz hitz egiten da, taldearen eragina... Igel marroitxo ipuin arrunt gisa irakurri daiteke, baina enpatia gaiaren inguruan lanketa berezi bat egiteko, metodologia zehatz bat lantzeko eta erabiltzeko gomendagarria da.



Katagorri kaskagorrorak

Idazlea Rachel Bright
Argitaletxe Ibaizabal
Adina 4 urtetik aurrera

Bat-batean, Zirilo katagorria ohartu da udazkena heldu dela eta berak ez duela jan-edanik bildu negua gainditzeko. Orduan sasoiko azken pinaburua aurkitu du, baina ez du berak bakarrik ikusi: Bruce zuhurra da eta berak ere ikusi du. Une horretatik aurrera garaikur irrikagarria lortzen karrera azkarra hasten da. Ibilbidea gorabeheratsua da eta, bertan, elkarri lagundu behar diote, nahitaez, Brucek eta Zirilok; azken batean, garrantzitsuena lagun batekin tarte on bat partekatzea dela ikasiko dute.



Getxoko Familia Eskola

Jardueren egutegia
2019 Urtarrila-Maiatza

GAIA	DATA	ORDUA	IKASTETXEA
“Nire umea egun osoa dago Instagramen, Fortnitera jolasten edo Whatsappean” (euskaraz)	Urtarrilak 15, 22, 29	17:00-18:30	San Nikolas ikastola
Eskolara joatea tortura bihurtzen denean (Bullyinga)	Urtarrilak 24, 31 / Otsailak 7	17:00-18:30	CEP Romo
Adimen Emozionalean eta Adimen Emozionalarekin heziz	Otsailak 13, 20, 27	15:00-16:30	CEP Geroa
Smartphonak, Sare Sozialak eta Internet	Martxoak 1, 8, 15	14:30-16:00	CEP Zabala
“Marihuana aurkitu dut bere arropen artean; zer egin dezaket?”	Martxoak 6, 13, 20	18:00-19:30	IES J. Caro Baroja
Berdintasunean eta genero indarkeriaren aurka heziz	Martxoak 21, 28 / Apirilak 4	16:30-18:00	Ntra. Sra. Europa
“Hitz egingo dugu drogei buruz?”	Martxoak 25 / Apirilak 1, 8	17:00-18:30	Santísima Trinidad
“Umeak nola egiten diren galdetu dit”	Maiatzak 3, 10, 17	15:00-16:30	Divino Pastor
“Ama, aita: ez dot eskolara joan nahi” (Bullyinga) (euskaraz)	Maiatzak 15, 22, 29	18:30-20:00	Aixerrota BHI

- Familientzako eskola saioak doakoak dira eta Getxoko familia guztiei zuzenduta daude. Ez da beharrezkoa seme-alabak saioak emango diren zentroetako ikasleak izatea.
- Aurretiaz izena eman beharko da online inprimaki baten bitartez, zuen AMPAK edo eskolak bidaliko dizuen mezu elektronikoko bitartez. Baita gurasoeskolagetxo@gmail.com bitartez.
- Saioak gauzatzeko gutxienez 6 pertsonen izena eman beharko dute. Gutxieneko parte-hartzaileak ez baldin badago, izena eman dutenei saioa bertan behera geratu dela jakinaraziko zaie.
- Ikastaroen hiru saio izango dituzte, taulan adierazitako egunetan.
- Lehenengo egunean ezin baldin baduzue joan, hurrengo saioetara joateko aukera izango duzue, baina izena eman beharko da horretarako.

info+
94 466 01 51